



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2017ko abenduaren 27a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 20:18 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:33

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2017ko urriaren 31n egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko bide publikoen inbentarioa.



- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Erretzabal-Munioeta 14 bide publikoaren desafektazioari, Orioko Etxaiz baserriaren inguruan, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorriz.
- 4.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkarteak emango duen eskualdeko herrietako etxe, komertzio, zerbitzu eta industrien sortutako hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari buruz.
- 5.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko bide publikoetako aparkalekuei buruz.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Politika Departamenturako maila ertaineko teknikari lanpostua jabetzan betetzeko oinarrien aldatzea, kontu bakar honi dagokionez: epaimahai kalifikatzailearen osaketa.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari legalen zentsuko datuen kontsultari buruzko D-7 eranskina.
- 8.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoen proposamena 2018rako.
- 9.- Onartzea, egoki bada, EH Bildu talde politikoak aurkeztu duen mozioa, Lanbide Heziketako ikastetxeetan inbertsio publikoak egiteko beharrari buruz.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2017KO URRIAREN 31AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du ohar bat egin nahi diola aktaren zirriborroari: gai-zerrendako lehen puntuan honako hau dio: «Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarretako gai-zerrenda prestatzeko eskumena alkatetzari dagokiola toki-araubideko legez xedapenetan ezarritakoaren arabera, eta zinegotziei eskatzen die legez eta arauz berari dagokion eskumen hori errespetatzea.» Puntu horretan ez da jasotzen, ordea, Emeteriok berak, alkateak esandakoari erantzunez, adierazitakoa: alegia,



errespetatzen dituela alkatetzari legez eta arauz dagozkion eskumenak, baina kritikatu egiten duela alkatearen jarrera gai honi buruz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Emeterio Iribar zinegotziak aktaren zirriborroari egindako oharra ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2017ko urriaren 31n egindako ohiko bilkurako akta, Emeterio Iribar zinegotziak udalbatzar honetan egindako oharra gehituta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOA.

Udalbatzarrak gaiari buruz tramitatu den espediente administratiboaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2016ko abenduaren 27an egindako ohiko bilkuran:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Conchi Uriarte Seminariok eta Nekane Azarola Martínezek 2011ko abenduan idatzitako Orioko bide publikoen inbentarioari, bi aldaketa hauek eginda:

a) Lehen aldaketa: «14 Erretzabal-Munioeta» bide publikoaren trazatua aldatzen da, Etxaiz eta Munioeta baserrien arteko zatian.

b) Bigarren aldaketa: «14 Erretzabal-Munioeta» bide publikoaren trazatua aldatzen da, Etxaiz baserriaren inguruan.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean **ARGITARATZEA**, jendaurrean jartzeko, interesatuek aukera izan dezaten erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko udalbatzarraren aurrean, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Espediente hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (85. zenbakia; 2017ko maiatzaren 5a). Alegaziotarako epean M. Luisa Peña Sarasuak eta M. Milagros Zuloaga Urangak adierazi dute bigarren aldaketaren kontra daudela («14 Erretzabal-Munioeta» bide publikoaren trazatuaren aldaketa, Etxaiz baserriaren inguruan).

Espedientean bi txosten hauek daude: udal arkitektoarena, 2017ko urriaren 23koa; eta Conchi Uriarte Seminario teknikariarena, 2017ko urriaren 20koa.



Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokio gai honi buruzko erabakiak hartzea.

Baserrietako jabeek aurkeztutako eskari eta alegazioen argitan, eztabaidaren muina haxe da: finkatzea ea bide publikoa Etxaiz baserriaren ekialdetik edo mendebaldetik pasatzen den.

Espedientean dauden dokumentuak aztertuta, udal idazkaritzak txostena egin zuen 2017ko azaroaren 16an eta, bertan azaltzen duenez, ez dago oinarri nahikorik zalantzarik gabe finkatzeko nondik pasatzen den bide publikoa. Horren adibide dira Etxaiz baserriaren finka zatitzeko eskriturak, 1884koak: bertan zorpeko bide bat aipatzen da, ekialdeko eta mendebaldeko lurren arteko muga egiten duena, baina ez da zehazten nondik pasatzen den eta ez da planorik eransten.

Xabier Alberdi historialariak emandako txostenak, berriz, ondorioztatzen du ekialdekoa dela baserriaren sektore noble edo nagusia. Udal idazkaritzak, ordea, bere txostenean dio hori arrazoizko argudioa dela ekialdeko pasaeraren izaera publikoa defendatzeko; baina ez zaiola iruditzen argudio horrek nahiko indarra duenik mendebaldeko pasaerak ere izaera publikoa duela deskartatzeko.

Conchi Uriarte teknikariak eta alegatzaileek aurkeztutako kartografiari dagokionez, bai planoetan eta bai ortofotoetan nahiko garbi ikusten da bidearen trazatua baserriaren hegoaldean. Hala ere, 1942ko planoak baserriaren ekialdetik markatzen du bidea eta, aldiz, 1966ko planoak, mendebaldetik markatzen du.

Udal idazkaritzak, azkenik, adierazten du 1946ko eta 1954ko ortofotoetan baserriaren alde guztietan sumatzen direla bideak eta, era berean, «Casería llamada Etxaiz-zarra o Itzaiz-zarra»ren erregistroko deskripzioan aipatzen direla «los caminos carretiles que atraviesan dicha propiedad»; horrela, pluralean. Beraz, udal idazkaritzak ondorioztatzen du aipatutako bide publikoaren pasaera, oso aspaldidanik, baserriaren bi aldeetatik egin dela eta, hortaz, bidearen bi pasaerak (ekialdekoa zein mendebaldekoa) jo daitezkeela publikotzat.

Ondorioz, udal idazkaritzak proposatzen dio udalbatzarrari Orioko bide publikoen inbentarioaren lehen onarpeneko erabakia aldatzea, bakar-bakarrik zentzu honetan: aipatutako bide publiko horren bi pasaerak (Etxaiz baserriaren ekialdekoa eta mendebaldekoa) izaera publikoa dutela ezartzea; eta, horrela, behin-betikoz onartzea inbentario hori, udal idazkaritzak 2017ko azaroaren 16an egindako txostenean proposatutako terminotan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, emandako txostenak ikusita (Conchi Uriarte Seminario teknikariak 2017ko urriaren 20an emandakoa, udal arkitektoak 2017ko urriaren 23an emandakoa eta udal idazkaritzak 2017ko azaroaren 16an emandakoa) eta Hirigintza eta Ingurumeneko batzorde informatzaileak 2017ko



abenduaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Arruti (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu), eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- PARTZIALKI ONTZAT HARTZEA M. Luisa Peña Sarasua eta M. Milagros Zuloaga Urangak aurkeztutako alegazioak, zentzu honetan: «14 Erretzabal-Munioeta» bide publikoaren bi pasaerak (Etxaiz baserriaren ekialdekoa eta mendebaldekoa) izaera publikoa dutela ezartzen da, udal idazkaritzak 2017ko azaroaren 16ko txostenean azaldutako arrazoiengatik.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, beraz, Orioko bide publikoen inbentarioa, udalbatzarrak 2016ko abenduaren 27ko ohiko bilkuran hartutako lehen onarpeneko erabakiaren termino beretan, aldaketa bakar honekin: «14 Erretzabal-Munioeta» bide publikoaren bi pasaerak (Etxaiz baserriaren ekialdekoa eta mendebaldekoa) izaera publikoa dutela ezartzen da. Hori guztia udal idazkaritzak 2017ko azaroaren 16ko txostenean proposatutako terminotan.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau M. Luisa Peña Sarasua eta M. Milagros Zuloaga Uranga alegatzaileei, aurkeztu ditzaketen lege-errekurtsoak adieraziz.

4.- ARGITARATZEA erabaki honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan eta horren arabera joka dezan, aurkeztu daitezkeen lege-errekurtsoak azalduz.

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du gai-zerrendaren 3. puntuaren eztabaidan azalduko dituela beren abstentzioaren arrazoiak, bi gaiak (bigarrena eta hirugarrena) zuzenean lotuta daude-eta.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ERRETZABAL-MUNIOETA 14 BIDE PUBLIKOAREN DESAFEKTAZIOARI, ORIOKO ETXAIZ BASERRIAREN INGURUAN, ESPEDIENTEKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAREKIN BAT ETORRIZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 8. artikuluan, 1 eta 2 ataletan, honako hau ezartzen da, hitzez hitz:

1.- La alteración de la calificación jurídica de los bienes de las Entidades Locales requiere expediente en el que se acrediten su oportunidad y legalidad.



2.- El expediente deberá ser resuelto, previa información pública durante un mes, por la Corporación Local respectiva, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma.

Kontuan hartu behar da Oriko udal korporazioaren kide-kopurua, legez, 13koa dela; eta, beraz, gehiengo absolutua lortzeko, 7 udalbatzarkideren aldeko botoa behar dela gutxienez.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumeneko batzorde informatzaileak 2017ko abenduaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ) y Bello (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; gehiengo sinplea, beraz. Abstentzioak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu), Arruti (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ABSTENTZIO**]:

EZ EMATEA LEHEN ONARPENA Erretzabal-Munioeta 14 bide publikoaren desafektazioari, Oriko Etxaiz baserriaren inguruan, ez delako lortu udalbatzarraren gehiengo absolutuaren aldeko botoa, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 8. artikulua agintzen duen moduan.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela gai-zerrendako bigarren eta hirugarren puntuetan, Udalak ez duelako elkarriketarik izan Etxaiz baserriko bizilagunekin, sortutako gatazkari irtenbidea emateko.

4.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK EMANGO DUEN ESKUALDEKO HERRIETAKO ETXE, KOMERTZIO, ZERBITZU ETA INDUSTRIEK SORTUTAKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUARI BURUZ.

Urola Kostako Udal Elkarteak Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 15ean egindako ohiko osoko bilkuran lehen onarpena eman zion Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuen aldaketari. Horren ondotik, espedienteak jendaurrean erakusgai jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez (GAO 2016-12-29, 246. zk.) Jendaurrean erakusgai jartzeko arauzko epean ez zen erreklamaziorik izan. Jarraian, batetik, estatutuen aldaketaren espedienteak Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso zuen eta, bestetik, Udal Elkarteak osatzen duten udal guztiek onartu dute. Oriko Udalak 2017ko maiatzaren 30eko udalbatzarrean onartu zituen estatutu berriak, araudiak eskatzen duen udalbatzarreko kideen gehiengo absolutuarekin.



Estatutuetan egindako aldaketa honako hau da: 5. artikuluan, Udal Elkartearen xedeen artean sartzea etxeko hondakin guztien gaikako bilketa, errefusa barne.

Behin estatutuak aldatzeko espedienteak bukatuta, estatutu berriak osorik argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2017ko azaroaren 13ko GAO, 216. zenbakia), eta orduan sartu ziren indarrean.

Hona hemen aldaketa-espedienteak hizpide duen 5. artikulua, aldatu aurretik eta ondoren:

5. artikulua

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartea osatzen duten udalerrien garapena eta udalerrri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):

- *Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzea.*
- *Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekeko programak.*
- *Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.*
- **Hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuak eta Garbiguneen kudeaketa.**
- *Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.*
- *Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.*
- *Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.*
- *Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.*

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

5. artikulua [ALDATUTA]

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak



Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkartearen osatzen duten udalerrien garapena eta udalerri horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eskusiboan nahiz osagarrian):

- *Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzeara.*
- *Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.*
- *Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.*
- ***Etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak.***
- *Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.*
- *Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.*
- *Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.*
- *Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.*

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikuluko honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabaltzeko Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

Horrenbestez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 10.3, 19.2 eta 102. artikuluetan eta horiekin bat datozen artikuluetan aurreikusitakoak kontuan hartuta, udal honek erabaki du, Urola Kostako Udal Elkartearen osatzen duten beste udalekin batera, ondoko arlo honetako eskumena era mankomunatu gaitzeko, Urola Kostako Udal Elkartearen bidez: «Etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa».

Mankomunitateak arautzen dituen araubidearen (6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen) eta Urola Kostako Udal Elkartearen arautzen duten Estatutuen arabera, Urola Kostako Udal Elkartearen eskuduntzak dira, besteak beste eta bere helburuak betetzeko beharrezko diren heinean, erregelamenduak garatzeko ahalmena eta zerga eta finantza arloko ahalmena.



Hortaz, Udal Elkartearen eskuduntza dira zerbitzuak arautzeko ordenantzak onartzea eta bere eskumenen esparruan eskaintzen dituen zerbitzuak finantzatzeko zerga arloko baliabide propioak zehaztea, araubideak aurreikusten duenaren baitan. Alabaina, hondakinak biltzeko zerbitzuari dagokionez, gaur arte Udal Elkarteak ez du ahalmen hori erabili.

Ondorioz, hori guztia kontuan hartuta, Udal Elkarteak ahalmen hori erabili eta emandako eskumena gauzatu dezan, Udalak berariaz onartu behar du akordioa, Udal Elkarteari hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzeko ematen zaizkion eskuduntzak zehazteko.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2017ko abenduaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

Urola Kostako Udal Elkarteari etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta industrian sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua osorik kudeatzeko transferitutako eskumenaren esparrua mugatzea, akordio honetan ezartzen diren zehaztasunen argitara.

Lehenik.- Etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan eta industrian sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak arautzen dituzten ordenantza eta erregelamenduak onartzea, aldatzea eta indargabetzea. Zerbitzuen kontratazioa eta horien aldaketa, likidazioa eta ebazpena.

Urola Kostako Udal Elkarteak arautuko du etxebizitzetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa, Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuan, ondoko araubide honekin bat etorritik: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 22/2011 Legea, ekainaren 28koa, hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa.

Zerbitzu hori arautzeko ordenantza bat onartuko da, helburu hauekin: hondakinak biltzeko zerbitzuak definitzea eta Udal Elkartearen eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana arautzea; bestela esan, bi aldeek eskubide eta betebeharrak arautzea. Halaber, aurreikusiko du, atal bereizi gisa, zehapenen araubidea. Atal horrek tipifikatuko ditu 22/2011 Legeak aurreikusten dituen arau-hauste eta zehapenak eta ezarriko du berariaz zehapen-ahalmena izango dela udalena, udalek baitituzte, batetik, legez aitortutako aginte eta agenteak, arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakariak eta horien erantzule izan daitezkeen pertsonen nortasuna zehazteko ikuskapenak egin edo akta edo atestatuak egiteko eta, bestetik, behar diren administrazio-sailak, zehapen-ebazpena hartu aurretik bideratu beharreko zehapen-prozedurak izapidetzeko. Horri dagokionez, Udal Elkartearen kale hezitzaileek udalei bideratuko dizkiete salaketak.



Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du Udal Elkartearen eremuko udalerrietako etxebizitzetan, komertzioetan, ostalaritzan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kontratazioa nahiz kontratuak aldatu, likidatu eta amaitzea.

Bigarren.- Ordenantza fiskalak onartu, aldatu eta indargabetzea: zergak bildu eta kudeatzea.

Urola Kostako Udal Elkarteak onartu, kudeatu eta bilduko du Udal Elkartearen osatzen duten udalen lurralde eremuko hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren tasa. Horretarako, batetik, tasa hori arautzen duen ordenantza fiskala onartuko du eta, bestetik, tasa hori kudeatu eta biltzeko (borondatezko epean eta behartze bidean) behar diren hitzarmenak egingo ditu, tasaren sistemaren eraginkortasuna eta ekonomia ziurtatzeko.

Hirugarren.- Datu pertsonalen fitxategiak, sortu, aldatu eta ezeztatzea.

Urola kostako Udal Elkarteari transferitzen zaio hondakinen erroldako erabiltzaileen fitxategiaren titulartasuna. Udalek sarbidea izango dute fitxategi horietako zerga-datueta, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa) 21. artikulua eta 2/2005 Foru Arauaren (martxoaren 8koa, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra) 92.1 b) artikulua argitaratu. Sarbidea izatea beharrezkoa da fitxategia eguneratzeko lanak (altak, bajak eta aldaketak) udalek eta Udal Elkarteak egin ahal izateko eta, horren bidez, herritarrei beren zerga datuetan aldaketak egiteko aukera bertatik bertara eskaini ahal izateko. Horrez gain, udalek datuetara sarbidea izatea beharrezkoa da udal zergen betebeharrak betetzei buruzko ziurtagiriak egin ahal izateko.

Laugarren.- Indarrik gabe uztea 2017.12.31tik aurrera, udal honek Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin sinatutako hitzarmenaren dagokion atala.

5.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIDE PUBLIKOETAKO APARKALEKUEI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Merkataritzako batzorde informatzaileak 2017ko abenduaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ALDATZEA Orioko bide publikoetako aparkaleku mugatuko sistema, aparkatzeko zailtasunak gutxitzeko. Onartutako aldaketa hau da: batetik, merkatariek emango



duten erloju bat erabiliko da; eta, bestetik, aparkatzeko denbora-muga luzatu egingo da: 30 minututik 60 minutura.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIZARTE ZERBITZUAK ETA BERDINTASUN POLITIKA DEPARTAMENTURAKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARI LANPOSTUA JABETZAN BETETZEKO OINARRIEN ALDAKETA, KONTU BAKAR HONI DAGOKIONEZ: EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN OSAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko Batzorde Informatzaileak 2017ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Politika Departamenturako maila ertaineko teknikari lanpostua jabetzan betetzeko oinarrien aldaketa, kontu bakar honi dagokionez: epaimahai kalifikatzailearen osaketa. Aldaketa honako hau da: ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiak zailtasunak dauzkala berdintasun teknikari bat izendatzeko epaimahai kalifikatzaileako, horren ordezkari gizarte ongizateko teknikari bat edo maila bereko teknikari bat izendatuko da epaimahaikide, deskartatu gabe berdintasun teknikari batek parte hartu ahal izatea, beharko balitz, epaimahai kalifikatzailearen aholkulari gisa, baina inolaz ere ez eskubide osoko mahaikide gisa.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ORDEZKARI LEGALEN ZENTSUKO DATUEN KONTSULTARI BURUZKO D-7 ERANSKINA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduak aldatu egin du Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari legalen zentsua arautzen duen Foru Agindua, Gipuzkoako udalek aukera izan dezaten zentsu hori kontsultatzeko.

Horretarako, martxoaren 24ko Foru Aginduak eranskin berri bat onartu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Departamentuaren eta Gipuzkoako udalen artean elkarri informazioa trukatzeko elkarlanerako hitzarmenari gehitzeko: D-7 eranskina, «Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari legalen zentsuko datuen kontsulta».

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko Batzorde Informatzaileak 2017ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:



1.- **ONARTZEA** Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari legalen zentsuko datuen kontsultari buruzko D-7 eranskina.

2.- **AHALMENA EMATEA** alkateari eranskin hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOEN PROPOSAMENA 2018RAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak eskaria aurkeztu du, 2018an Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %1,6 igotzea proposatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko Batzorde Informatzaileak 2017ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA %1,6 igotzea Urola Kosta bailarako auto-taxi zerbitzuaren tarifak, Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak proposatutakoa aintzakotzat hartuz. Tarifa berriak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dira indarrean.

Beraz, 2018ko tarifak honako hauek izango dira:

TARIFA URBANOAK 2018			
PROPOSAMENA	GUTXIENeko TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXOITEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	5,3123	1,1336	21,6501
2. TARIFA**	6,3236	1,8081	35,3395

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jai egunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.



9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTU DUEN MOZIOA, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEETAN INBERTSIO PUBLIKOAK EGITEKO BEHARRARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioa EH Bildu talde politikoak aurkeztu du, EAJ taldearekin adostuta, eta honela dio hitzez hitz:

Urola Kosta eskualdean lanbide heziketa arloak garrantzi handia du, gazte eta langabetu askok lan mundura salto egiteko ezinbesteko prestakuntza lana burutzen baitu. Berrikuntza teknologikoan eta enpresa sare zabal batean oinarritutako lanbide heziketan urteetako tradizioa duen eskualdea gara eta ezinbestekoa da hezkuntza mota hori ere babestu eta sustatzea.

Hala ere, udal eta udal elkarteko administrazioetan hezkuntza arloan lanean ari direnengandik laguntza ekonomikoen premia larrien ahotsak entzuten ari gara behin eta berriro, dagokion hezkuntza saileko arduradunen aldetik iristen ez den erantzun azkar eta eraginkorraren zain.

Inbertsioak egin ahal izateko eskualdeko udal elkarteari laguntza eskatu zaio Lanbide Heziketa arlotik eta garbi dugu tokiko administrazioetatik, hezkuntza komunitatearekin elkarlana bultzatu eta kalitatezko hezkuntza sistema izan dezagun, halako eskaerei erantzun egin behar diegula, eskumena duen Hezkuntza sailari hartu beharko lituzkeen konpromezuak betetzeko eskatuz.

Legebiltzarrean aurrekontuak lantzen ari diren garai honetan, Lanbide Heziketako ikastetxeen inbertsio beharrei erantzuteko neurri egokiak proposatu nahi ditugu.

Aipatutako kontuan izanik, Orioko udalbatzarrak honako puntuak onartzen ditu:

MOZIOA

1. Orioko udalbatzarrak adierazten du pertsonak (ikasle, irakasle zein langileak, baita langabetuak ere) euren prestakuntza bermatzeko baldintza duinak ziurtatu behar direla; horrekin batera, tokiko garapen jasangarria, berrikuntza eta ikerketa, sortzailatza eta ekintzailatza, nazioarteratzea eta metodologia aurreratuak izan behar dute hezkuntzako ardatz nagusiak.

2. Orioko udalbatzarrarentzat helburu izan behar du Lanbide Heziketaren kalitatea areagotzeak, garapen pertsonalera eta lan-jardunera bideratutako prestakuntza-eskaintza osatzeak, pertsonen lanbiderako gaitasunak bizitzan zehar hobe daitezen sustatzeak, enplegu egonkorreko eta kalitatezko aukerak areagotzeak, erronka eta proiektuen emaitzen arabera ikaskuntzaren ikuspegi oinarritutako sistema malguak eratzeak, ikasketen uzte goiztiarraren eta eskola-porrotaren aurkako politikei balore positiboak eta laguntza emateak eta trebetasun sozialak, komunikazio-gaitasuna, enpatia etabar sustatzeak.



3. Orioko udalbatzarrak, Eusko jaurlaritzari eskatzen dio 2018ko aurrekontuetan Lanbide Heziketako ikastetxeetan egin behar diren inbertsioei irtenbide integral eta egokia emateko aurrekontu partidak sor eta bultzatzea, hurrengo urteetan ere arazo horri erantzun dion plangintza bati jarraituz.

4. Orioko udalbatzarrak, agente ekonomiko eta sozialei, Lanbide Heziketarekiko konprometua eskatzen die. Bereziki, eskualdeko enpresei, gazteen heziketarekin eta enpleguarekin zuzenean konprometitu daitezela eskatzen die, enpresa bakoitzaren aukeren arabera, LHko zentruarekin elkarlana sustatuz, programetan parte hartuz eta hitzarmenak sinatuz, betiere ikaslearen formakuntza helburu eta praktikaldi eta lan-baldintza duinak errespetatuz.

5. Mozio honen berri, EAEko legebiltzarrari, Hezkuntza Sailburuari, Urola Kostako Udal Elkarteari eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeei emango zaie.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EH Bildu talde politikoak aurkeztutako eta EAJ taldearekin adostutako mozioa, Lanbide Heziketako ikastetxeetan inbertsio publikoak egiteko beharrari buruzkoa, goian jasotako terminotan.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza (PSE-EE-PSOE) eta adierazten du gaurkoa dela urteko azken udalbatzarra eta urteko balantzea egitea tokatzen dela. Adierazten du, 2017ko aurrekontua onartu zenean, EAJk zenbait konpromiso hartu zituela eta, esate baterako, hirigintza eta obren alorrean 17 inbertsio egingo zirela jaso zutela, eta horietatik 8 bakarrik exekutatu direla. Bestalde, dio EAJk aurkeztu zuen kronograman zeinbat jardura zeudela jasota (HAPOari buruz eta lur azpiko edukiontziei buruz, esaterako), eta horiek ere ez direla exekutatu. Horrek, Anaren ustez, antolamendu-falta adierazten du eta garbi uzten du, bestalde, ez dagoela koordinaziorik alkatearen eta udal batzordeetako buruen artean.

Ondoren, Ana Priede zinegotziak adierazten du azken udalbatzarrean galdera egin ziola alkateari Orioko bi ikastetxeetan antolatutako bide-heziketa ikastaroari buruz eta alkateak erantzun ziola gaia aztertu eta hurrengo udalbatzarrean erantzun ziola. Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Mikal Etxeberria udaltzaina dagoeneko joan zaiola Ana Priederi, bide-heziketa ikastaroaren zehaztasun guztiak azaltzera. Esaten du, baita ere, Mikal Etxeberria udaltzainak bide-heziketako ikastaroa lehenengoz antolatu zuenean, aurreikusten zela ikastaroa ez zela urte



bakarreko kontua izango eta, beraz, 2017ko aurrekontuan aurreikusita zegoela gastua Mikal ordezkatzeko ikastaroa egiten zen bitartean.

Ana Priede zinegotziak, hala ere, adierazten du bide-heziketa ikastaroaren balorazioa egin behar zela, bukatutakoan; baina gaia ez dela oraindik aztertu Hezkuntza batzordean. Esaten du aztertu behar dela ea datozen urteotan ere ikastaroaren gastuak Oriko Udalaren kargu izango diren edo ikastetxeek ordaindu behar dituzten Udalarekin sinatuta dauzkaten hitzarmenen baitan.

Ana Priedek esaten du, gainera, 2017ko udal aurrekontuan ez zegoela partidarik Mikal Etxeberria ordezkatzeko, bide-heziketa ikastaroa egiten zuen bitartean; baina 2018ko udal aurrekontuaren proiektuan partida hori argi eta garbi izendatuta jasotzen dela.

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta, hasteko, adierazten du aurrekontuko partidak udal batzordeetan diktaminatutakoaren arabera exekutatu behar direla.

Ondoren, adierazten du bere talde politikoarentzat mingarria dela 2017ko aurrekontuaren exekuzioaren balantzea eta adibidetzat aipatzen du Oriko egoera sozialaren azterketa-diagnosia abenduan bertan adjudikatu dela eta gaia urtebete baino gehiago egon dela geldirik.

Alkateak erantzuten dio esanez nahi baino gehiago luzatu dela azterketa-diagnosi horren kontua, eta hau izan dela arrazoiak: hasieran lan hori egin behar zuen enpresari (SIS) langileak joan egin zitzaizkiola; alkateak dio, horren ondorioz, EDE Fundazioari eskaini zaiola lana egitea. Esaten du, baita ere, gaia Gizarte Ongizateko batzordeburuak gestionatu duela zuzenean, gizarte-ongizateko teknikarien parte-hartzerik gabe. Emeterio Iribar zinegotziak zalantzan jartzen du azken horren egokitasuna, baina alkateak defendatzen du gaia tramitatzeko erabili den prozedura legekoa izan dela.

Emeterio Iribar zinegotziak, bestalde, adierazten du bere talde politikoak ez dakiela ezer Tokiko Gobernu Batzarrak agintaldiaren hasieratik (2015) egindako bilerei buruz. Jakin duela Ana Priedek utzi egin diola batzar horretako kide izateari eta gaiari buruzko informazioa eskatzen duela.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Tokiko Gobernu Batzarrari buruzko galderari hurrengo udalbatzarrean erantzungo diola.

Ondoren, Emeterio Iribar zinegotziak Oriko HAPOaren (Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra) idazketaren gaia zertan den galdetzen dio alkateari. Alkateak erantzuten dio esanez onartzen duela HAPOaren tramitazioa poliki doala; baina ez dela gelditu. Esaten du Hirigintza batzordeko buruak adierazi diola lan luzea dela, urte askotakoa, eta jarduketa urbanistiko guztiak zehatz eta arreta handiz aztertzea eskatzen duena. Alkateak esaten du ez dagoela seriotasun faltarik Oriko HAPOaren tramitazioari dagokionez; baina bai adierazi nahi duela kontraesan garbia dagoela



udalbatzarrak ekainean aho batez onartu zituen planeamenduko irizpide, helburu eta irtenbide orokorren eta azaroan oposizioko alderdiek aurkeztutakoaren artean. Edo EH Bilduk, Orainek eta PSE-EE-PSOEak aldatu egin dituzte irizpide eta helburu horiek edo ez dago batere garbi zer den proposatzen dutena.

Aipatua izan delako, Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du Orioko HAPOaren idazketa 2014an hasi zela, gero herritarrek hainbat ohar egin zizkietela testuari, geroztik bi urte pasatu direla eta Udalak ez diela oraindik erantzun ohar horiei. Alkateak erantzuten dio esanez hori hala dela, baina egia dela, baita ere, beste 11 ohar ere aurkeztu direla epez kanpo eta horrek, nahitaez, zaildu egiten duela espedientearen tramitazioa.

Aipatua izan delako, Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du EAjren proposamena izan zela Orioko HAPOaren lehen onarpenaren gaia 2017ko maiatzeko udalbatzarrerara eramatea.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du, alde batetik, bere egiten dituela Emeterio Iribar eta Ana Priede zinegotziek udalbatzar honetan esandakoak; eta, bestetik, 2016. urte osoan ez zela Hirigintza batzordearen bilkura bakar bat egin Orioko HAPOaren gaiari buruz.

Ondoren, Jose Angel Iparragirre zinegotziak galdera egiten dio alkateari lur azpiko edukiontzien gaiari buruz. Alkateak erantzuten dio esanez aste honetan bertan bukatuko dela lur azpiko edukiontzi bakar batean egin den azterketa, eta laster jakingo dela bideragarria ote den ekonomikoki eta funtzionalki.

Azkenik, Jose Angel Iparragirre zinegotziak adierazten du erantzuntzat ematen duela Orioko egoera sozialaren azterketa-diagnosia egiteari buruzko galdera, gai horri buruz alkateak lehen eman duen erantzunaren argitan.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako batek hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta urte berri ona opa die han diren guztiei. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,